

GOBERNU-ORGANOAK / Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrek astearte goizetan egiten du ohiko bilkura. Alkatea da burua, baina horrek beste kide bat eskuordetu dezake presidentziarako, eta zazpi zinegotzi delegatuak dira Gobernu batzarkide. Horrela legeak agindutakoa betetzen da; izan ere, legearekin bat gehienez ere

zinegotzi guztien herenak osa dezake Tokiko Gobernu Batzarra, alkateaz gainera (Iruñean 27 zinegotzi dira). 2012an, Tokiko Gobernu Batzarrek **68 bilerak** egin zituen. Bilkura haietan, 442 erabaki hartu ziren.

	2008	2009	2010	2011	2012
Ohiko bilerak	49	48	47	46	45
Ezohiko bilerak	4	3	1	2	-
Ezohiko eta premiazko bilerak	5	1	24	10	23
GUZTIRA	58	52	72	58	68
Hartutako erabakiak	676	696	715	576	442



GOBERNU-ORGANOAK / Zinegotzigo delegatuak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, alkateak zinegotzi delegatuak eskuordetzen ahal ditu, berezko dituen hainbat eskumenetarako. Alkateak, era berean, zinegotzigo bereziak sortzen ahal ditu, Toki Entitateen Antolaketa- eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduan aurreikusitako arautzearekin bat.

Zinegotzi delegatuek eskuordetza-xedapenean aurreikusten diren eskumenak eskuratuko dituzte, edo berariaz eskuordetu ezean, alor bakoitzaren gaien barruan ahalmen, eskubide eta betebeharrak ororen jabe bilakatuko dira, alkatearen eskumenekoak eta eskuordetzan emateko modukoak izaki eskuordetzan hartutako aferetan. Iruñeko Udalak zazpi zinegotzi delegatu eta zortzi kudeaketa-alor ditu: zerbitzu orokorrak; hezkuntza eta kultura; herritarren segurtasuna; enplegua, merkataritza eta turismoa; herritarren partaidetza, gazteria eta kirola; proiektuak eta hiri-kontserbazioa; hirigintza, etxebizitza eta ingurumena; eta gizarte-ongizatea eta berdintasuna.

Ebazpenak	2012
Zerbitzu Orokorrak	340
Hezkuntza eta Kultura	547
Herritarren Segurtasuna	8.000
Enplegua, Merkataritza eta Turismoa;	
Herritarren Partaidetza,	
Gazteria eta Kirola	2.261
Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa	263
Hirigintza, Etxebizitza	
eta Ingurumena	2.330
Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna	415
Gerentzia	118
GUZTIRA	14.274
Zuzendaritza delegatuak	2012
Ingurumena	224
Ogasuna	1.667
Giza Baliabideak	753
GUZTIRA	2.644